

GALDETEGIA

1. Zientzia liburuetan, beste izen bat ageri ohi da hizpide den animaliaren izenaren ondoan; latinez idatzita egoten da, eta letra etzanaz ere bai. Izen horri “izen zientifikoa” esaten zaio; bilatu testuan zeta-harrari dagokiona eta idatzi behean.

2. Jakingo duzueenez, animaliak hiru taldetan sailkatzen ditugu haien elikadura motaren arabera: belarjaleak, haragijaleak eta orojaleak. Sailkapen hori kontuan hartuta, zein taldetan kokatuko zenituzke zeta-harrak?

3. Testuko animaliatxoek oihal berezi bat egiteko haria sortzen dute. Zer hari da hori? Nola du izena?

4. Zer dela eta egosten dituzte oskolak animalia oraindik barruan dagoela?

5. Zer kontinentetatik ekarri zituzten zeta-harrak Europara?

6. Testuaren arabera, txinatarrek urte askoan gorde zuten sekretupean zeta-harrei etekina ateratzeko prozesua. Zergatik jokatu zuten horrela?

7. Zer dute zeta-harrek gizakiaren elikadurarako onuragarri?
